

29

ZRV

3427

H. 70757
F. 74704

AV
31594



JESUS-EN VIOTZ SAGRADUA

BETI ADORATZEN EGOTECO MODUA,

JESUS-EN COMPAÑIACO SACERDOTE BATEC

erðern; ipiñia,

eta Vergara-co Apai; batec

EUSCILDUNEN ONERACO

EUSQUERRARA ITZULIA.

Vitoria-co Obispo Jaunaren baimenarequin.

Bigarren aldian.

VERGARA-N

Francisco Maria Machain-en moldizteguian.
1868-garren urtean.

LIBRARY OF THE UNIVERSITY OF MICHIGAN

ANN ARBOR, MICHIGAN

THE UNIVERSITY OF MICHIGAN

Es propiedad.

ALBERT A. HARRIS

LIBRARY OF THE UNIVERSITY OF MICHIGAN

ANN ARBOR, MICHIGAN

THE UNIVERSITY OF MICHIGAN
ANN ARBOR, MICHIGAN
1903

LICENCIA DEL EX.^{mo} É IL.^{mo} S.^r OBISPO DE
VITORIA.

Examinado de nuestra orden el opúsculo
«*El modo práctico de adorar perpetuamente
el Sagrado Corazon de Jesus,*» escrito por
V. en lengua vascongada, y no encontrándose
en él nada contrario à la santa fé, y buenas
costumbres, damos nuestra licencia para
que pueda darse à la prensa el referido opúsculo:
y mandamos que antes de espendar los
egemplares que se impriman, se remita à Nos
uno à los efectos debidos. Dios guarde à V.
muchos años. Vitoria 4 de Setiembre de 1866.
=DIEGO MARIANO, Obispo.=Sr D. Tomas
Eleizalde.

IRACURLEARI.

Jesus-en viotzaren devocio edo jayerac gure animari eracartzen diozcan ondasunac ondo ezagutzeco, asco degu S. Pedro Damiano-c diona jaquitea. » Viotz onetan (dio Santu onec) » arquituco ditugu gure buruac escudatzeco » armaac, eta gure gaitz gucientzat bear bece- » laco sendagayac, gure etsayac menderatzeco » laguntzaric indartsuenac, gure penac arint- » zeco atseguñic aundienac, gure anima pozez » betetzeco gozaldiric garbienac.

» ¿Naigabez eta penaz beterie arquitzen ce- » rate? ¿Zuen etsayac perseguitzen zaituzte? » ¿Zuen lengo pecatuac icaratzen zaituzte? » atozte bada aldareen aurrean beláunicatzera, » zoazte Jesus-en besoetara, sar-zaitezte bere » viotzeraño, bada ausse da anima justuen » gorde-lecua, eta emen billatuco degu gure » animarentzat lecu segurua. »

Hitz oequin animaturic, artu zuten persona devota batzuec Jesus-en viotza beti adoratzan egoteco asmo ederra: eta au bear becela e- guiteco biltzen dira bederatzi lagun, ceñac,

Ceruco bederatzi Ainguernen coruaquin batean, bacoitzac bere chandan adoratzan dute viotz maitagarri au.

Jesus-en viotza beti adoratzan egotea modua.

— **LENENGO EGUITECOA.** —

— **ERAGUILLEA.** —

Jesus-en viotz sagraduaren jayera zabaldunai duanac, bat-eguiñie bere errequeac ceruco Tronuen coruaquin, eguiñ bear da al-eguiñ gucia bere hitz eta obra Jaincozcoaquin cristau guciac viotz sagradu su ezagutu, maitatu, eta aduratu dezaten, batez-ere bere adisquide eta aide urcoenac: onetaraco egunez noicean bein eta batez-ere amabietatic arratsaldeco irurac bitartean esango du oracio labur au: *Santificatua izan bedi. Jauna, Zure Icen santua.*

Igandeetan eguingo dio aguertu bat Sacramentu chit santuari, iru Aita-gure eta iru Salve errezatuz, escatzen diola Jesus eta Maria-ren bitartez Jaincoari iracequi dezala bere amorioaren su santua cristau guciac viotzetan, eta batez-ere cofrade edo anayenetan.

Onen eguitecoa izango da Jesus-en viotzaganaco jayerac dacazquien ondasunac adie-

raztea, eta bere adisquiden bat cofradia onetan sar-erazotzea. Goicean oetic jaiquitzean, arratsean oeracoan, eta egunez moiz edo ber-
riz eguingo du otoitz labur au. *Noiz Jauna, noiz ezagutuco eta mailatuco ote zaituzte cristauac Zuc mereci becelu.*

BIGARREN EGUITECOA

ZUCENTZALLEA.

Zucentzalleac ceruco mende edo Potestade-
en coruaquin batean *astelen* gucietan eman-
go dio icusi bat Sacramentu gucz santuari,
eta escatuco dio Jaungoicoari barcacioa amo-
riozco Sacramentu onetan cristauac beren e-
peltasun, beguiramentuaren falta, eta comu-
nio gaiztoacquin eguiten diozcaten bidegabeac-
gatic. Esqueñico diozca Aita beticoari Virgini-
a chit santaren, eta santu gucien irabaci-
ac Jesu-
cristo-ren-aquin batean, onela nolerebait ordain-
tze-
co edo erremediatze-
co gure amorioz Aldare-
co Sacramentuan eramaten dituan bidegabeac.

Onen eguitecoa izango da bere vicimodu-
co eguin-bideac contuz betetzea munduaren
esanai casoric eguin gabe: eta egunean bost
aldiz eguingo du au, edo bere oficioco la-
nac al-duan ondoena eguiñaz, edo beste o-
nelaco cerbait eguiñaz: azquenic lan oec Jaun-

goicoari esqueñico diozca viotz sagraduaren irabaciaquin batean.

Goicean oetic jaiquitzean, arratsean oera-coan, eta egunaz inoiz edo berriz eguingo du otoitz labur au: *¡Ay Jauna! ¡nic nere viotz otz au besteric ez eduqui bearra Zure amorioari erantzuteco, eta aimeste cristau esquergaitococn Zuganaco epeltasuna ordaintzeco!*

IRUGARREN EGUITECOA

ADORATZALLEA.

Adoratzalleac, Irutasun edo Trinidad e chit santae, eta ceruco aguinde edo Dominacioen coruac Jesus-en viotz sagraduari beti ematen ari diran alabantzaquin bat-eguiñic emango dio *astearte* gucietan icusi bat Aldareco Sacramentu guciz santuari, esanaz iru bider oracio au: *Santua, Santua, Santua da gure Jaun Jaungoicoa; gloria Aitari, gloria Semea-ri, gloria Espiritu Santuari.*

Onen eguitecoa izango da Elizan beguiramentu aundi bat eduquitzea, egoten dala oetan hitzic eguin gabe, eta beguiac lurrera beguira, Jesus Sacramentaluari zor zayon amorioagatic. Egunean bost aldiz agur eguingo dio Jesus i dagoan lecutic Elizarontz beguira; dala burua macurtuaz, dala otoitz laburren bat eguiñaz.

Goicean oelic jaiquitzean, arratsean oera-
coan, eta egunaz noicean beiñ esango du: *Tri-
nidade guciz santa, bear becela eciñ adonatu
zaitugun ezquero, esquaintzen dizquitzugu ce-
ruco doatsuac, eta Virgíña chit santac ema-
ten dizquitzuten alabantzac, Jesu-cristo-c mun-
duan bici zan artean bere viotzean eman ciz-
quitzunaguin batean.*

LAUGARREN EGUITECOA.

MAITATZALLEA.

Jesus-en viotzaren maiteac ceruco Serafinen
cornaguin bat-eguiñic eguingo ditu amoriozco
eguintza asco, onela Jaungoicoaren servitzora
oso-emanic dauden viotzen ozlasuna nolabait
erremediatzeko; eta onelaraco *asteazquen* gu-
cietan eguingo dio aguertu bat Jesus Sacra-
mentatuari, escatuaz eman dizayela cofradia
onelaco guciai viotz bat Jaungoicoari dago-
quon becelacoa, eta Jaun au bear aimbeste
maitatzen daquiena.

Egunean ascolan, eta batez-ere arratsean
esnatzen bada, esango du: *Jauna, egizu mai-
tatu zaitzadan, bada Zu cera nere ontasun
gucia.*

Onen eguitecoa izango da lagun progimoa-
ganaco caridadea, dala oni mesederen bat e-

guinaz, dala bere elsayari agur eguinaz edo onegatic egunean bost aldiz Jaunari erregutiaz.

BOSTGARREN EGUITECOA.

ICASLEA.

Icasleac Querubiñen cornaquin batean escatuco dio Jaungoicoari issuri ditzala guizonen adimentuetan bere jaquinduria aundiaren ugaritasunac, eta artuco ditu beretzat esanac halira becela escriptura sagraduco hitz ayec: *icasi ezazute Nigandic, bada malsa a naiz, eta humilla viotzez.*

Ostegunetan emango dio icusi bat Jesus Sacramentatuari, eta escatuco dio zabaldu ditzala bere viotzeco arguitasunac aimbeste dotriña eta liburu gaizto icasten ari diranetan, onela utziric bide gaizto eta fedearen contra-coac, biurtu dilecen berriro Eliza Ama santara.

Onen eguitecoa izango da Jaungoicoaren mandatu edo goiarguiari leyalqui erantzutea, eta onetaraco egunoro esaminiatuco ditu egun artaco pensamiento onac, icusiaz nola erantzun dien Jaungoicoaren dei oeri: utseguiteren bat arkitzen badu, Jaungoicoari barcacioa escatuco dio, eta eguingo du Jaungoicoac dey oen bidez eracutsi dion gucia, onetaraco confesoreac esaten diena adituric.

Eguneanbost aldiz, eta batez-ere goiceco seiectatic bederatziac bitartean noicean bein esango du: *Jauna, eracutsi zadazu Zure vorondatea eguiten.*

SEIGARREN EGUITECOA

JAUSCAÑIA.

Victima edo jauscañiac cerueo Virtuteen coruaquin batean *ostiral* gucietan eguingo dio aguertu bat Jesus Sacramentatuari, esqueintzen diola bere izatea Aita beticoari amorioaren victima becela Jesu-cristo-requin batean.

Cristau guciacgandic, baña batez-ere beren vicimodu edo estaduagatic Jaungoicoa servitzero bearturic daudenacgandic sacrilegio eta beste onelaco pecatuacquin igarotzen dituan bidegabeac nolabait ordaintzeco, errezatu bitza best Aita-gure bost Ave-maria, eta bost Gloria Jesus-en bost zaurien icenean, eta Salve bat Ama Virginiari.

Onen virtutea izango da bere pasio edo griña gaiztoac menderatzea, eta bere gustoco gauzaren bat jan edo icusi gabe guelditzea.

Egunero goicean oetic jaiquitzean, arratsean oeratzean, eta egunaz inoiz edo berriz esan beza: *¡Ay cein sacrificatu ditequean pecatarien saltracioagatic Jaungoicoaren amoriozco*

*suan ! Ar-zazu, Jauna, nere sacrificioa nigatic
sacrificatu zan Jesus-en violzarequin butean.*

ZAZPIGARREN EGUITECOA.

SERVITZARIA.

Servitzariac, ceruco Goiaingueruaquin bat-
tean, pensatu beza loturic dagoala Jesu-cris-
to-ren amorio bigunaren cate gozoaquin, Jesus
guizonen amorioac Aldareco Sacramentu san-
tuan loturic daucan becelu.

Larumbat gucietan emango dio icusi bat
Aldareco Sacramentu guciz santuari, escatuaz
eracarri ditzala cristau guciac bera maitat-
zera: eta onelaraco errezatuco ditu sei Aita gu-
re, sei Ave-Maria, eta sei Gloria.

Onen virtutea izango da bere vorondatea
Jaungoicoa-ren-aquin bat-eguitea, bere buru
diranen aguinteac poie eta bereala eguiñaz.
Egunean bost aldiz esan beza: *Nere Jaun-
goicoa, zure servitzaria naiz: eracutsi zada-
zu zure vorondatea eguiten.*

ZORTZIGARREN EGUITECOA.

ESCALEA.

Escaleac, ceruco Aingueruaquin bat-eguiñic

igande gucietan, eguingo dio aguertu bat Jesus Sacramentatuari, eta Aita beticoari Jesus-cristo-ren irabaci atzengabeac esqueñiaz, fede bici batequin escatueo diozca mesede ugariac Jesus-en viotzaren cofradiacoentzat, eta premiaren batean arkitzen diran gucientzat, erregutuaz batzere iltzen daudenacgatic, Purgatorioeo animacgatic, pecatarien conversio edo obetzeagatic, Aita Santuaren eta Eliza Ama santaren zorionagatic, eta erregue calolico edo fededunen arteco paqueagatic: onelaraco errezatueo ditu sei Aita-gure, sei Ave-maria, eta sei Gloria.

Onen virtutea izango da humiltasuna, inoiz edo berriz humillatuaz, eguin dezagun contu, dala bere etsayari hiltz-eguiñaz, dala gorrotoa dionari agur eguiñaz: egunean bost aldiz esango du; *baldu aur eguiten ez baneiz, ez naiz sartueo ceruelaco erreinuan.*

BEDERATZIGARREN EGUITECOA.

ZAITZALLEA.

Jaungoicoaren honrraren zaitzalleac, Aingueruen bederatzi coruac lagun arturic, eguingo du al-eguiñ gucia Jesus-en viotzaganao devocioa zabaldu dediñ, eta lendic ipiñia dagoan lecuetan, cofradia onec iraun de-

zan: alde-eguingo-du al-eguiñaz gaizqui-esaca edo murmuracioco becatutic guciacgatic ondo hiltz-eguiñaz, eta gaizqui-esaten ari diranai, besteric ecin badezaque, aurpegui illunaquin bere naigabea aguertuaz.

Ostiral gucietan eguingo dio aguertu bat Jesus Sacramentatuari, eta escatuco dio eman dizayela cofradia onetaco guciai bere adisquidetasunean irauteco gracia, eta guciac vici eta ill ditecela Jaungoicoaren gracion. Jesus-en viotz sagraduari errezatuco dio Credo bat, Maria-ren viotz garbiari Salve bat, eta S. Jose-ri Aita-gure bat.

Onen eguitecoa izango da Jaungoicoaren gloria eta cristauen salvacioagatic contu artzea, bere hizqueta eta erreguaquin pecatarien bat Jaunagana biurtzeco al-eguiña lagunduaz; onetaraco egunean bost aldiz esango du: *Jauna, eguin bedi zure borondatea.*

OARQUERAC EDO ALVERTENCIAC.

1.^a *Eguiteco oetan esaten dana ez da obligaciozcoa; alá ez du becatutic eguingo ez mortalic ez eta venialic ere emen aguintzen dana eguiten ez duanac.*

2.^a *Elizara joan ecin danac asco du Sacramentu chit santuari sei Aita-gure cchetit errezatzea.*

JESUS EN VIOTZ AGONIZANTE EDO-ILTZEKO DA-
GOANGANACO DEVCCIOA.



Devocio edo jayera au da bi gauzataraco: lehenengo Jesus-en viotz sagradua, gure animen salvacioagatic bere bicitza gucian, baña batez ere pasio santuan igaro cituan naigabe eta pena aundiyacgatic. honratzeco Bigarren, agonia luce onen irabaciac bitarteco dirala, irichi dizayegun eriotza on bat egunero mundu gucian guchi bat gora bera illzen diran *larogueti milla personai.*

EGUNEROKO OTOITZA EGUN ARTAKO OGUEITA LAU
ORDUETAN ILTZEKO DAUDENACGATIC.



¡Oh Jesus guciz erruquilsua! ¡Gure animen maitatzallea! zure viotz guciz sagradua-ren agoniacgatic eta zure Ama manchagabea-ren naigabeacgatic erregutzen dizut garbitu itzatzula zure odolarequin orain iltzeco dauden eta gaur ill bear duten munduco pecatari guciac. Ala izan dedilla.

Jesus-en viotz iltzeco dagoana, erruquitu zaite illzen daudenagaz.

Oracio onequin esqueñico diozcagu Jesus-en viotzari eguneco obra onen batzuec, egun artan iltzeco daudenacgatic.

PENSAQUIZUNAC.

¡Laroguei milla personac amildu bear dute gaur eriotzaren atzaparretara!

Bai, laroguei milla personac aguertu bear dute gaur Jaungoicoaren tribunal izugarrian.

¡Gaur asitzen dira laroguei milla personentzat edo betico atseguin contentuac, edo betico neurrigabeco tormentuac! ¡Ay ene! ¡laroguei milla oen artean cembat arquitzen ote dira pecatu mortalean!

Cristauac, erruquiz beteric erregutu ezanle oecgatic: Jesus-en viotzac escatzen dizute mesede au, zuecgatic, eta anima triste oec guciagatic aimbeste neque artu ciuan viotz orrec.

Esca zayozute batezere pecalariacgatic. Confesio on bat edo acto contriciozco eguiazco bat asco dute infernura amildu ezditecen. Esca zayozute bada Jesus-en viotz iltzeco dagoanari gracia bi oetatic bat eman dizayela: esca zayozute bertatic; gaur, gaur bertan bear du izan. bigar berandu da.

Esca zayozute, esca zayozute iltzen dandenaegatic. zuen anayac dira Jesu-cristogan; bear bada zuen senideac, adisquideac, edo onguilleac izango dira

Erregutu ezazute iltzen daudenaegatic, eta onela eguingo dezute Jesu-cristo-c berac eguin zuana, au da, animac salbatzea. . . ¡Oh!

¡cer lan Jaincozcoa!

Erregutu ezazute iltzen daudenacgatic: Santiago Apostoloac dio ece bere lagun-urcoari bide oquerretic ateratzen laguntzen dionac salvatuco duala bere anima, eta irichico duala pecatu ascoren barcacioa.

Erregutu ezazute iltzen daudenacgatic. . . . au eguiten badezute, egunen batean beste batzuec erregutuco dute zuecgatic, iltzen zaudetenean. . . . ¡Oh! ¡nolacoa izango dan zuen poza azquenengo orduco pelea ayetan!

Eracutsi zayozute ezdaquiten guciai Jesus-en viotz iltzeco dagoanaren jayera: ipiñi ezazute zuen echeetan eta zuen adisquideen artean devocio au; eta ez dudaric izan, Jesus-en viotz sagraduac bedeincatuco zaituzte. Egunean anima bat bacarra salvatzen dezutela ere zuen erreguaquin, urtearen acaberan irureun eta iruroguei ta bost izango dira zuec salvatutaco animac. . . amar urtean iru milla seireun eta berrogueta amar. . . . ¡Cer aboztu ugaria! ¡cer coroy ederra beste munduraco!

Itzeco daudenen oracioa errezatzen dan ba-coitzean irabazten dira *eun eguneco indulgenciac*: eta illean bein *indulgencia edo barcacio osoa*, ill artaco egun gucietan egunean *iru aldiz* ordu diferente edo banatan esaten bada. Barcacio osoa irabazteco gauza bearra da confesatzea, comulgatzea, eta Eliza ba-

tean Aita santuac nai dituan premiagatic zazpi Aita gure, zazpi Ave-maria, eta zazpi Gloria errezatzea. Indulgencia oec esqueñi ditezque purgatorioco animen alde. (*Pio IX* 1850)

Illeco lenengo ostiraletan edo igandeetan cumulgatu ondoren esateco.

ORACIOA

Jesus salvatzalle maitagarria: zure gugar-naco amorio atzengabeagatic Aldareco Sacramentu santuan gure companian guelditu nai izan dezuna, aitortzen zaitugu gure Jaun eta Jaincotzat. Adoratzen zaitugu obediencia eta humiltasunic aundienarequin, eta gure viotz gucitic esquerrac ematen dizquitzugu zure viotz sagraduac oguiaren idurien azpian sacramentu orretan aguertzen digun amorioagatic. Naigabez betere eciñ da gueyago cristauac ematen dizuten tratu gaizto, eta gure esquergaiztoagatic, zure oñetan auspezturic, gucien aurrean nolabait ordaindu nai ditugu, Jauna, oraindano amoriozco Sacramentu orren contra eguin diran sacrilegio eta gaiztaqueric; baita aurrera eguingo diranac ere. Damu degu, gure Erredentore guciz maitagarria, gure zugar-naco beguiramentu guchi eta epeltasunaz: ez dizayezula beguiratu, Jauna, gure pecatuai, eta eguizu sutu ditecela gure viotzac, Seratiñenen

antzera, zure caridadeco garretan, modu onetan mereci dezagun egunen batean zure laguntzaquin Zu ecustea, gozatzea, eta santu guciquin batean Ceruan zure alabanzac beticotasun gucian cantatzea. Amen.

INDULGENCIAC.

Cofradia onetan sarturic danden guciac, confesatu, comulgatu, eta cofradiaco elizan zazpi Aita-gure, zazpi Ave-Maria, eta zazpi Gloria Aita Santuac nai duan premiagatic erreztuquin, irabazten dute *indulgencia edo barcacio osoa* orain esango diran egunetan.

1. Ill bacoitzeco lenengo ostiral, edo igandean
2. Cofradia onetan sartzen diran egunean.
3. Jesus-en viotzaren egunean, edo urrengo igandean.
4. Nor berac nai duan ill bacoitzeco egun batean.
5. Eriotzaco orduan Jesus-en icen gozoa damuturic esanaz, edo hitzez eciñ badute viotzez.
6. S. Gregorio egunean, Marchoaren amabian
7. S. José egunean.
8. Ama Virginiaren festa gucietan.
9. Ostegun santu egunean.
10. Pazcoa loratuco igandean.
11. Jesu-cristo gure jauna cerura igo zan egunean.

12. S. Pedro egunean.
13. Santu gucién egunean.
14. Animen egunean.
15. Egūarri egunean.
16. S. Juan Evangelista avenduco ogueita zazpigarren egunean.

Cristau guciac, Jesus-en viotzaren egunean edo urrengo igandean, eta festa onen aurreco sei ostiral edo igandeetan

1.^a *Indulgencia oec irabazteco gauza bearra da egunero Jesus-en viotzari Aita-que bat, Ave-Maria bat, Gloria bat, eta Credo bat erre-zatzea, azquenic oracio au esanaz: Nere sal-vatzalle maitagarriaren viotza, eguizu ira-cequi dedilla eta beti ugarituaz joan dedilla nigan zure amorioa.*

2.^a *Gassoric daudenac ere irabaci ditzate-que indulgencia oec, eta onelacoac Sacramentu santuaren estacion ordaintzeko eguingo dute confesoreac aguintzen diotena*

3.^a *Indulgencia oec esquenî ditezque Purga-torioco animen alde.*





